



5

Dossier : Pour une ville accessible, apaisée et durable
Dosierra: Hiri helgarri, lasai eta iraunkor baterako

14

Les Cibouriens mobilisés pour dessiner l'Encan de demain
Ziburutarrak biharko Encan auzotegia marrazteko mobilizatuak

26

Les 150 ans de l'anniversaire de Maurice Ravel célébrés dans la baie de Ciboure et Saint-Jean-de-Luz
Maurice Ravel-en 150. urteburua ospatua Ziburu eta Donibane Lohizuneko badian

COMITÉS DE QUARTIERS AUZO KOMITEAK

**DES PROJETS COLLECTIFS POUR CIBOURE !
GURE HIRIA ELKARREKIN ERAIKI DEZAGUN !**

**DANS CHAQUE QUARTIER, VOS CONTACTS
AUZOTEGI BAKOITZEAN, ZUEN KONTAKTUAK**

- SOCOA - UNTXIN**
socoa.untxin@mairiedeciboure.com
- BORDAGAIN - SOPITENIA**
bordagain.sopitenia@mairiedeciboure.com
- OIHAN ALDE - ARRANTZALEA**
oihan.alde@mairiedeciboure.com
- MARINELA - ZUBIBURU**
marinela.zubiburu@mairiedeciboure.com
- CENTRE VILLE - HIRI BARNEA**
centre.ville@mairiedeciboure.com
- ERREKA ZAHAR - SAINTE CROIX**
erreka.zahar.sainte.croix@mairiedeciboure.com

WWW.MAIRIE-CIBOURE.FR
WWW.ZIBURUKO-HIRIA.EUS

**ZIBURU
CIBOURE**
MAIRIE - HERRIKO ETXEA

12	AURKIBIDEA SOMMAIRE	
	12	16
22	22	30
	24	
12	16	19
Les travaux dans la ville Obrak hirian	Les sauveteurs à l'honneur Sokorritzaileak ohoretan	Les cours d'écoles se mettent au vert Ikastetxeetako jostalekuak berdetzen dira
22	24	30
4 communes ensemble pour la transmission de l'euskara ! 4 hiri elkarrekin euskararen transmisioaren alde!!	Un programme d'éducation artistique, culturelle, sportive et scientifique Arte-, kultura-, kirol- eta zientzia- programa bat	Comités de quartiers : assemblées générales en avril Auzotegi batzordeak biltzar nagusiak apirilean

Ciboure • Bulletin Municipal • Mairie de Ciboure | Place Camille Jullian | 64500 Ciboure | Tél. 05 59 47 26 06 | mairie@mairiedeciboure.com | www.mairie-ciboure.fr
 Directeur de la publication : Eneko Aldana-Douat, Maire de Ciboure | Rédactrice en chef : Marie Surzur
 Traduction : Argitxu Errotabehere | © Photo couverture : Komcebo | © Photos : Mapiurdi | Komcebo | AdobeStock | Ville de Ciboure
 Création graphique et mise en pages **altergraf** | Impression : Aberadère à Bayonne | Ce magazine est imprimé à Bayonne, sur papier recyclé.

ÉDITO A



Chères Cibouriennes, Chers Cibouriens,

Ciboure bouge et se réinvente avec vous ! L'année 2025 marque l'aboutissement de projets importants pour notre commune, qui ont pour ambitions d'apaiser la ville et de favoriser un environnement urbain harmonieux et épanouissant pour toutes et tous.

En ce sens, nous nous engageons à rendre le domaine public mieux adapté aux besoins de tous et plus accessible.

D'une part, nous travaillons dans tous les quartiers pour sécuriser la voirie publique : ralentir la vitesse automobile, dégager les trottoirs pour les piétons et favoriser les mobilités actives. L'objectif : réduire les conflits d'usages et permettre à chacun de se déplacer librement et en toute sécurité dans la ville.

D'autre part, le domaine public doit être plus inclusif. Depuis l'installation d'un élévateur et d'une rampe d'accès à l'église en novembre dernier, tous les bâtiments publics de Ciboure sont accessibles à tous, notamment aux personnes à mobilité réduite. Pour autant, nous devons poursuivre les efforts sur la voirie. C'est en ce sens que nous travaillons depuis 2020 et ce travail s'intensifiera cette année avec l'aboutissement d'aménagements urbains importants pour Ciboure.

L'année dernière, nous avons aménagé le parking de la Plaine des Sports pour faciliter et organiser le stationnement sur place, tout en végétalisant cet espace. D'ici la fin du printemps, ce sont la création du giratoire et l'allongement de la piste cyclable qui démarreront pour sécuriser cette entrée de ville et l'accès à nos équipements sportifs. En parallèle, nous entamons les travaux d'aménagement des avenues Joseph Abeberry et Jean Jaurès, aménagements qui doivent répondre aux besoins en stationnement, tout en apportant des solutions satisfaisantes pour la circulation à pied. Les personnes à mobilité réduite, et plus généralement les piétons, seront les premiers bénéficiaires de ces travaux.

Ces aménagements, nous les menons aussi en apportant un traitement paysager des espaces publics : partout où c'est possible, nous essayons proposer des zones végétalisées, à la fois pour créer des îlots de fraîcheur en ville et anticiper le changement climatique, à la fois pour redessiner un paysage urbain plus aéré, plus esthétique, plus agréable à vivre.

En complément, nous poursuivons nos campagnes de voirie : toutes les rues de la ville doivent être entretenues, certaines de façon plus prégnante que d'autres. Dès 2020, nous avons établi un programme pluriannuel que nous déroulons année après année. En 2025, ce sont sept voies qui seront reprises pour améliorer le confort de circulation des habitants.

En allant vers une circulation mieux maîtrisée, des espaces publics accessibles à tous et un cadre urbain embelli, nous aspirons à favoriser un cadre de vie serein et harmonieux au sein d'une ville plus fonctionnelle.

Ces initiatives, ces projets, nous les menons avec énergie et enthousiasme, pour répondre à vos besoins et faire évoluer la ville avec vous !

Bonne lecture,
Eneko Aldana-Douat, Maire de Ciboure

Ziburutar agurgarriak,

Ziburu zuekin batera mugitzen eta berriz sortzen da! 2025. urteak gure hiriarentzat garrantzitsuak diren proiektuen gauzatzea ikusi du, hiria lasaitzeko eta denei harmoniatsu eta loratzeko proposa zaien hiri-ingurumena sustatzeko xedea dutelarik.

Ilido horretatik, eremu publikoa denen beharrei egokia eta helgarriagoa egiten dihardugu.

Alde batetik, auzotegi guzietan lanean ari gara bide publikoak seguru ezartzeko: ibilgailuen abiadura moteltzea, espaloak oinezkoen soilik uztea eta mugikortasun aktiboak sustatzea. Helburua: erabiltzaileen arteko liskarrak murriztea eta bakoitzari hirian libreaki eta segurtasun osoz ibiltzeko bidea eskaintzea.

Bestalde, eremu publikoa inklusiboagoa izan behar da. Joan den azaroan elizara heltzeko altxagailua eta arrapala jarri dugunetik, Ziburuko eraikin publiko guztiak denei helgarri zaizkie, mugikortasun urriko pertsonen ere. Haatik, bidearen arloan, indarrak egiten segitu behar dugu. Ilido horretan ari gara 2020tik goiti, eta lan hori areagotuko da aurtengo hiri-antolaketa nagusi batzuen gauzatzearekin.

Iaz, Kirol Zelaiko aparkalekua antolatu genuen bertako aparkatzea errazteko eta antolatzeko xedez, guneko paisaia ere landuz. Hemendik udaberri bukaerara, biribilgunearen sortzea eta bizikleta bidearen luzatzea abian ezarriak izanen dira hiriko sarbide hori eta kirol-ekipamenduetarako sarbidea seguru ezartzeko.

Aldi berean, Joseph Abeberry eta Jean Jaurès etorbideen antolaketa lanak hasten ditugu, aparkatzeko arazoei aterabide bat ekarriko dietelarik, oinezkoen zirkulazioa ere hobetuz. Mugikortasun urriko pertsonen eta, oro har, oinezkoek dute probetxu handiena aterako obra horietarik.

Antolaketa horiek eremu publikoaren paisaia balioan ezartzeko ere daramatzagu: ahal den leku guzietan, eremu landareztatutako proposatzen saiatzen gara, hirian fresko gunek sortzeko eta klima aldaketara egokitzeko, baita hiri-paisaia argiagoko, ederragoa, bizitzeko goxoagoa marrazteko ere.

Horrez gain, gure bide obren kanpaina aitzina eramaten segitzen dugu: hiriko bide guztiak artatuak izan behar dira, batzuk arto handiagoz. 2020tik goiti, urte anitzeko programa bat finkatu dugu, urtez urte betetzen duguna. 2025ean, zazpi bide berrituak izanen dira biztanleen zirkulazio erosotasuna hobetzeko.

Hobeki kudeatua den zirkulazio bat, denei helgarri zaizkien eremu publikoak eta hiri-ingurune edertua lortzeko bide horretan, funtzionalagoa den hiri baten galtzarrean bizi ingurumen lasai eta harmoniatsu bat sustatzeko xedea dugu.

Ekimen horiek, egitasmo horiek, kemenez eta suhertasunez daramatzagu, zuen beharrei erantzuteko eta hiria zuekin aitzina eramateko!

Irakurketa on,
Eneko Aldana-Douat, Ziburuko auzapeza

LA VILLE ÉVOLUE ! POUR UNE VILLE ACCESSIBLE, APAISÉE ET DURABLE HIRIA ALDATZEN DA! HIRI HELGARRI, LASAI ETA IRAUNKOR BATERAKO

Depuis 2020, la Ville s'attache à penser ses aménagements de voirie de façon globale, pour mieux répondre aux besoins des personnes à mobilité réduite, sécuriser les mobilités actives, mais aussi apaiser l'espace public.

Elle s'efforce d'offrir un traitement paysager des aménagements, à la fois pour végétaliser la ville et réduire les effets de chaleur, mais aussi pour embellir les quartiers.

Les études d'aménagement du centre-ville et de l'Encan s'inscrivent dans cette démarche, et les aménagements prévus en 2025 en sont les illustrations.

Au programme cette année :

- » La sécurisation de l'entrée de la plaine des sports avec la création d'un giratoire et le prolongement de la piste cyclable ;
- » La végétalisation du parking Kattalin Aguirre à l'Untxin ;
- » L'aménagement de l'avenue Jean Jaurès ;
- » L'aménagement et la désimperméabilisation de l'avenue Joseph Abeberry.

En parallèle, la Ville poursuit ses efforts pour entretenir son patrimoine bâti et la voirie communale, avec une nouvelle campagne de travaux qui a déjà démarré.

2020tik goiti, Hiria bere bide antolaketak ikuspegi orokor batetik apailatzeari lotzen da, ahalmen urrikoen beharrei hobeki erantzuteko, mugikortasun aktiboak seguru ezartzeko, eta eremu publikoa lasaitzeko xedez.

Aldi berean, antolaketetan paisaia balioan ezartzera ahalegintzen da, hiria birlandareztatzeko eta bero gunek murrizteko xedez, baita auzotegiak edertzeko ere.

Hiri barnea eta Encan auzotegia antolatzeko ikerketak urraspide horretan sartzen dira eta 2025ean aurreikusitako antolaketak ere horren harira garatuak izanen dira.

Aurtengo egitaraua:

- » Kirol Zelairako sarbidea seguru ezartzeko biribilgune bat sortuz eta bizikleta bidea luzatuz;
- » Untsin auzotegiko Kattalin Aguirre aparkalekua birlandareztatzea;
- » Jean Jaurès etorbidea antolatzea;
- » Joseph Abeberry etorbidea antolatzea eta iragazkor bihurtzea.

Aldi berean, Hiriak bere ondare eraikia eta bere bideak zaintzeko indarrak egiten segitzen du, jadanik abiatu den obra kanpaina berri baten bidez.

Plaine des Sports

Phase 2 de l'aménagement : la sécurisation de l'entrée

Depuis l'année dernière, la Ville porte un aménagement d'ampleur au niveau de la Plaine des Sports. Cet équipement sportif bénéficie à de nombreux usagers et sa fréquentation a encore évolué ces dernières années depuis l'ouverture de l'espace associatif Landaburu. Aussi, afin de faciliter et de sécuriser son accès, la municipalité a travaillé un projet d'aménagement, qu'elle a souhaité le plus global et exemplaire possible dans la réponse apportée aux enjeux du site.

En 2024, une première tranche de travaux a ainsi été entreprise sur la Plaine des Sports :

- Une aire de stationnement enherbé d'une centaine de places a été créée ;
- Une noue végétale a été aménagée de façon à faciliter l'infiltration des eaux pluviales ;
- Une cuve de récupération des eaux de pluie a été installée, connectée à la toiture du centre technique municipal.

2025 marque le démarrage de la seconde tranche de travaux pour sécuriser l'entrée du site et faciliter son accès depuis le centre-ville, avec, dès le mois de mai, le prolongement de la piste cyclable et la création d'un giratoire et d'un plateau ralentisseur.

En parallèle, un quai de bus sera agencé le long de la route, de façon à accueillir les équipes usagères du stade et une liaison piétonne avec l'espace polyvalent sera matérialisée. Les travaux sont prévus pour une période de quatre mois.



Une trentaine
d'arbres et arbustes ont été plantés à la plaine des sports.

3 000 m² de surface ont été désartificialisés,
c'est-à-dire décroûtés et revégétalisés.



© KOMCEBO



© KOMCEBO

Les objectifs de l'aménagement de la plaine des sports :

- Faciliter et organiser le stationnement sur place ;
- Sécuriser l'entrée de ville en ralentissant le flux automobile ;
- Sécuriser la desserte de l'espace polyvalent, de la Plaine des Sports, du centre technique municipal pour les automobilistes mais aussi pour encourager son accès à vélo ;
- Apporter un traitement paysager du site avec une réponse végétalisée ;
- Permettre l'infiltration des eaux pluviales pour réduire les inondations sur place ;
- Réduire la consommation d'eau potable en réutilisant les eaux pluviales.

Kirol Zelaia

Antolaketaren 2. urratsa: sarbidea seguru ezartzea

Iaztik goiti, Hiriak hedadura handiko antolaketa bat darama Kirol Zelaiaren heinean. Jende anitzek erabiltzen dute kirol-ekipamendu hori. Are gehiago dabilta azken urte hauetan, Landaburu elkarte-gunea irekia izan denetik. Orduan, sarbidea errazteko eta seguru ezartzeko xedez, hiriak ahal bezain orokorra eta ereduzkoa nahi izan duen antolaketa bat landu du, gunearen erronkei erantzuteko.



© KOMCEBO

Kirol zelaiaren antolaketaren helburuak:

- Lekuan berean aparkatzeko bidea erraztea eta antolatzea;
- Hirirako sarbidea seguru ezartzea ibilgailuen abiadura motelduz;
- Erabilera anitzeko gelarako, Kirol zelairako eta hiriko zentro teknikorako beribilendako bidea seguru ezartzea, eta bizikletaz joateko bidea sustatzea;
- Kirol-ekipamendu horretara joatera akuilatzea, besteak beste bizikletaz, gazte eta familiei dagokienez.
- Gunearen paisaia-antolaketa lantzea landaketa batzuen bidez;
- Euri-urak lurtean sartzen uztea uholdeak murrizteko;
- Edateko ur gutiago xahutzea euri-urak berrerabiliz.

2024an, obren lehen urratsa egina izan da kirol zelaian:

- Ehun bat lekuko aparkaleku belarreztatatu bat sortua izan da;
- Landare-naba bat antolatua izan da euri-urak lurtean sartzen uzteko;
- Euri-urak biltzeko ontzi bat jarria izan da eta hiriko zentro teknikoaren teilatuari lotua.

2025ean obren bigarren urratsa abiatuko da gunerako sarbidea seguru ezartzeko eta hiri barnetik errazago heltzeko bizikleta bidearen luzatzearekin, maiatzetik aitzina, eta biribilgune bat eta bide konkor baten sortzearekin.

Aldi berean, autobus kai bat antolatua izanen da bidearen luzeran estadioko taldeak errezibitzeko gisan, eta erabilera anitzeko gelara joateko oinezko bide bat markatua izanen da. Obrek lau hilabete iraunen dute.

hogeita hamar bat
zuhaixka landatuak izan dira kirol zelaian.



3 000 m²-ko azalera desartifizializatua izan da,
hots mundruna kendua izan zaio eta birlandareztatua izan da.



© KOMCEBO

Végétalisation

Du parking Kattalin Aguirre

Alors qu'il était très abimé par les racines des platanes le joutant, le parking de la place Florentino Goicoechea avait été intégralement repris l'année dernière :

- ✦ Création d'une noue végétale ;
 - ✦ Plantation d'arbres, d'arbustes et de fleurs ;
 - ✦ Réfection des places de stationnement en dalles enherbées.
- Une réalisation qui embellit cette place, à l'origine un simple parking, tout en réduisant l'effet «îlot de chaleur» généré par le bitume.

Suite à cette première opération réussie, la Ville a décidé de renouveler l'expérience, sur la place Kattalin Aguirre ; les travaux ont débuté en février et devraient s'achever en avril.

De l'avenue Joseph Abeberry

La réfection des adductions d'eau potable et des réseaux d'assainissement devait être entreprise par la Communauté d'Agglomération Pays Basque sur l'avenue Joseph Abeberry. Afin de proposer une opération complète et groupée, la Ville a souhaité coupler à cette intervention l'enfouissement des réseaux aériens et la réfection de la chaussée.

L'année dernière s'est déroulée la première phase des travaux : la Communauté d'Agglomération a rénové les adductions d'eau potable, très vieillissantes, et mis en séparatif partiel les eaux pluviales et usées. L'enfouissement des réseaux secs, à savoir les câbles électriques et télécoms, touche à sa fin.

S'ouvre désormais la dernière tranche de travaux, la réfection de la voirie, pour une durée prévisionnelle de quatre mois.

Les enjeux de l'aménagement :

- ✦ Organiser le stationnement sur l'avenue Abeberry ;
- ✦ Mettre aux normes les trottoirs pour les rendre accessibles aux personnes à mobilité réduite ;
- ✦ Conserver une grande partie de l'îlot vert ;
- ✦ Désimperméabiliser et végétaliser cette avenue.

Pour travailler le projet, la Ville a convié les riverains à une réunion d'information, au cours de laquelle deux propositions d'aménagement ont été soumises au vote des habitants. C'est une solution proposant 70 places de stationnement désimperméabilisé qui a été retenue.

Pour ce faire, la circulation de l'avenue a dû être modifiée ; elle se fera désormais en sens unique.

Une nouvelle vie pour les platanes !

Comme cela avait été effectué l'année dernière avec un franc succès, les platanes de la place Kattalin Aguirre ont été transplantés à la plaine des sports, le long de la promenade menant au stade où ils seront davantage à leur aise pour s'épanouir. Au total, ce sont 25 sujets qui prennent racine au stade !

Bizi berri bat platanoentzat!

Iaz arrakasta handiarekin egina izan zen bezala, plazako platanoak berriz landatuak izan dira kirol zelaian, estadiorako ibilbidearen luzeran, non ederki loratzen ahalko baitira. Orotara, 25 zuhaitz sustraituko dira estadioan!



© KOMCEBO

Kattalin Aguirre aparkalekuaren birlandareztatzea

Iaz, ondoko platanoen erroek anitz andeatu zuten Florentino Goicoechea plazako aparkalekua guztiz berritua izan zen:

- ✦ Landare-naba bat sortua;
 - ✦ Zuhaitz, zuhaixka eta loreak landatuak;
 - ✦ Aparkatzeko lekuak lauza belarreztatuz berrituak.
- Jatorriz aparkaleku soila den plaza edertu duen lana, bero efektua murrizten duelarik.

Lehen ekintza arrakastatsu horren ondotik, Hiriak esperientzia berritza erabaki du Kattalin Aguirre plazan; obrak otsailean hasi dira eta apirilean bukatuko dira.

Joseph Abeberry etorbidearen birlandareztatzea

Euskal Hirigune Elkargoa edateko ur ekartzeen eta saneamendu sareen berritzeaz arduratu behar zen Joseph Abeberry etorbidean. Ekintza orokor eta bateratu bat proposatzeko xedez, Hiriak aukera baliatu nahi izan du airetiko sareak lurperatzeko eta bidea berritzeko.

Obren lehen urratsa egina izan da iaz: Euskal Elkargoak biziki zaharkituak ziren ur ekartzeak berritu ditu eta euri-urak eta ur zikinak hein batean bereizi ditu. Sare idorren lurperatzea (hari elektrikoak eta telekomunikazioak) bukatzeaz da.

Orain hasiko da obren azken urratsa, bidearen konponketa, lau hilabeteko iraupenarekin.

Antolaketaren erronkak:

- ✦ Aparkatzea antolatzea Abeberry etorbidean;
- ✦ Espaloiak arauen arabera ezartzea ahalmen urrikoei helgarri bihurtzeko;
- ✦ Berdegunearen zati handi bat atxikitzea;
- ✦ Etorbide hori iragazkor bihurtzea eta landareztatzea.

Proiektua lantzeko, Hiriak biztanleak informazio biltzar batera gomitatu zituen. Bi antolaketa aukera proposatuak izan zitzaizkien eta bozkara aurkeztuak. Biztanleek 70 aparkatzeko leku iragazkorreko aterabidea hautatu dute. Horretarako, etorbidearen zirkulazioa aldatu behar izan da; gaurdanik norabide bakarrekoa da.

Le réaménagement de l'avenue Jean Jaurès : apaiser l'entrée du centre-ville

Jean Jaurès etorbidearen berrantolaketa: hiri barnerako sarbidea lasaitzea

Les 80 logements de la résidence Iturri Alde, située en centre-ville, sont en cours de livraison pour les acquéreurs et locataires. Petit à petit, les nouveaux habitants intègrent les locaux, parmi lesquels :

- 30 logements en bail réel solidaire (pour permettre l'accès social) ;
- 21 logements locatifs sociaux.

La Ville engage désormais des travaux de réfection des voiries avoisinantes, c'est-à-dire une partie de l'avenue Jean Jaurès, le haut de l'avenue François Mitterrand, et le haut de la rue Bourousse.

Afin de sécuriser le carrefour avec l'avenue François Mitterrand, un plateau surélevé sera aménagé dans un enrobé clair et granuleux pour inciter encore à réduire la vitesse. Treize places de stationnement latérales sont prévues, dont des arrêts minutes, ainsi qu'un trottoir accessible aux personnes à mobilité réduite sur ce linéaire, qui sera végétalisé. Quant à la rue Bourousse, elle deviendra semi-piétonne.

Les travaux devraient débuter à la fin du printemps, pour une durée prévisionnelle de cinq mois ; une réunion publique sera prochainement organisée.

Hiri barnean kokatutako Iturri Alde eraikineko 80 bizitegiak erosle eta alokatzaileen esku utziak izanen dira laster. Obrak bukatzeaz direnez, hiriak inguruetako bideak berritzeko obrak abiatu ditu, hots Jean Jaurès etorbidearen zati bat, François Mitterrand etorbidearen gainaldea eta Bourousse karrikaren gainaldea. François Mitterrand etorbidearekiko bidegurutzeari seguru ezartzeko xedez, geruza argi batez estalitako bide konkor bat ezarria izanen da abiadura are gehiago moteltzeko. Bide bazezterean aparkatzeko hamahiru leku aurreikusitak dira, batzuk epe motzekoak, eta ahalmen urrikoei helgarri izanen zaien espalo bat izanen bidearen luzeran.

Obrak udaberri bukaeran hasiko dira eta bost hilabete iraunen dute; biltzar publiko bat antolatua izanen da laster.



© KOMCEBO



Les objectifs de l'aménagement :

- Marquer l'entrée en secteur centre-ville pour inciter les automobilistes à ralentir ;
- Apaiser le secteur en améliorant le carrefour avec l'avenue François Mitterrand ;
- Proposer du stationnement ;
- Améliorer le cheminement piéton ;
- Apporter de la fraîcheur dans un espace très minéral.

Antolaketaen helburuak:

- Hiri barneko sarbidea markatzea, gidariak abiadura moteltzera akuilatzeke;
- Eremua lasaitzea François Mitterrand etorbidearekiko bidegurutzeari hobetuz;
- Aparkatzeko lekuak gehitzea;
- Oinezkoen bideak hobetzea;
- Biziki minerala den eremuan freskogune bat sortzea.



© KOMCEBO

LES AMÉNAGEMENTS ROUTIERS DE BORDAGAIN SE POURSUIVENT

BORDAGAINNEKO BIDE-ANTOLAKETAK AITZINA DOAZ

L'été dernier, la Ville a initié un travail pour redonner les trottoirs aux piétons et réduire la vitesse des automobilistes sur le secteur Bordagain-Océan : changements de sens de circulation, matérialisation de places de stationnement sur la chaussée, installation de ralentisseurs, nouvelle signalétique routière.

Une réunion de bilan a été organisée en décembre 2024 avec les riverains, de façon à continuer à faire évoluer le dispositif. Ces dernières semaines, la Ville a procédé à de nouveaux aménagements, toujours dans le souci de sécuriser le secteur : création d'un mini-giratoire entre la rue de la Liberté et l'avenue Berastegui, matérialisation de nouvelles places de stationnement, de passages piétons.

Des finances saines pour des projets porteurs

La stabilité des finances cibouriennes prend le contrepied de la tendance nationale, et permet d'offrir à la population des perspectives positives : des projets portés sereinement pour améliorer le cadre de vie dans les quartiers tout en préservant le patrimoine communal et en préparant la ville aux effets du changement climatique.

Ainsi, plus de 5 millions d'euros d'investissement sont prévus pour 2025, avec un recours à l'emprunt prudent et contrôlé.

Amélioration du cadre de vie dans les quartiers

2 746 700 €

- 2^e tranche de la plaine de sports
- Aménagement désimperméabilisé de l'avenue Joseph Abeberry
- Aménagement végétalisé de l'avenue Jean Jaurès
- Soutènement de l'avenue de l'Océan
- Une campagne de travaux de voirie



Entretien du patrimoine communal

587 200 €

- Réalisation de diagnostic et des travaux de réhabilitation pour l'église, la Tour de Bordagain et l'ithuri Baita
- Reprise de la couverture de l'espace polyvalent



Stratégie énergétique

350 000 €

(Réduction des consommations et développement de sources de production)

- Mise en place de panneaux photovoltaïques sur la toiture du centre technique municipal
- Installation d'une pompe à chaleur et remplacement de radiateurs de la maison des associations, remplacement des menuiseries de la mairie
- Poursuite du déploiement des LED dans la ville



Réduction des îlots de chaleur des cours d'écoles et de la crèche

120 000 €

- Réalisation des travaux de déminéralisation et plantations école Marinela, ikastola et crèche : démarrage des opérations de décroûtage aux vacances de février dans les écoles.



Pour 2025, la Ville prévoit une réduction de 1,35% de ses charges de fonctionnement, issue de la gestion rigoureuse menée depuis 2020 en la matière.

Pour autant, les services à la population ont pu être confortés, voire développés.

Quant au recours à l'emprunt, il est très maîtrisé, puisque la capacité de désendettement est de 1,64 ans, un chiffre qui atteste de la très bonne situation financière de la commune.



Travaux de voirie

Outre la réfection des avenues Jean Jaurès et Joseph Abeberry, comme chaque année, la Ville poursuit son programme de voirie, avec une nouvelle campagne de réfection des trottoirs et routes communales, programmée pour près de 500 000 €. Au programme cette année : Avenue Lehena (trottoirs), Allée des primevères (trottoirs et chaussée), Impasse des pommiers (trottoirs et chaussée), Ruelle Boga-Boga, Chemin Dupont-Delporte, allée Levantenia, Sargardiko bidea.



2,34 km

linéaires de voiries seront repris en 2025 bide zati berrituak izanen dira 2025ean



L'installation de panneaux solaires au centre technique municipal

Dans le cadre de la stratégie menée pour réduire la dépense énergétique, en parallèle de la réduction de sa consommation, la Ville développe la production d'énergies renouvelables. Dès le début de l'été, les travaux d'installation de panneaux photovoltaïques sur la toiture du CTM (exposée plein sud) commenceront, une installation menée suite au raccordement des gouttières à la cuve de récupération des eaux de pluie.

Les travaux dans la ville Obrak hirian

1. Fortement réclamés par la Ville de Ciboure pour apaiser les conflits d'usages entre piétons et cyclistes, les travaux entrepris par le Département sur le Pont Charles de Gaulle sont en cours. Une solution qui, on le souhaite, devrait apaiser les relations entre usagers !

Oinezkoen eta txirrindularien arteko liskarrak lasaitzeko xedez Ziburuko hiriak azkarki eskatzen zituen obrak aribidean dira Charles de Gaulle zubian, 64 Departamenduak eramanik. Erabiltzaileen arteko harremanak goxatuko dituztela espero dugu!

2. Suite à l'affaissement de l'avenue de l'océan, une étude de sols a été menée. Les travaux de confortement débiteront à l'automne, pour une enveloppe prévisionnelle de 600 000 euros.

Itsasoko etorbidearen lehertzearen ondotik, lurren ikerketa bat eramana izan da. Sendotzeko obrak udazkenean abiatuko dira, 600 000 euroko aurrekontuarekin.

3. Le cimetière de Socoa a besoin d'un rafraîchissement ; son embellissement est à l'étude cette année.

Zokoko hilerria freskatu behar da; bere edertzea ikertzen ari dira aurten.

4. L'espace polyvalent a vu sa toiture arrachée lors des tempêtes de décembre. Une expertise a été réalisée et le dossier suit son cours auprès des assurances. La réparation devrait intervenir dans les semaines à venir.

Joan den abenduan, ekaitzak izan zirelarik, erabilera anitzeko gelaren teilatua airatu zen. Adituek ikerketa bat egin dute eta dosierra aribidean da asurantzzen aldean. Laster konpondua izan beharko litzateke, datozen asteetan.

5. Après le diagnostic structurel de l'église, c'est celui de la maison Iturri Baïta qui a démarré, de façon à déterminer les travaux de conservation nécessaires, le temps de réfléchir à son devenir.

Elizaren egituraren diagnostikoa egin ondotik, Iturri Baïta etxearena abiatu da, beharrezko zaintza obrak zehazteko xedez, bere etorkizunari buruz gogoetatu artean.



6. Les toilettes situées sur le parvis de l'église feront l'objet d'une rénovation complète, de façon à les rendre accessibles aux personnes à mobilité réduite et à créer un local technique. Plus propre, plus esthétique, ce local assurera aussi la continuité des équipements d'accessibilité livrés en novembre dernier, à savoir l'élévateur et la rampe d'accès pour les personnes à mobilité réduite.

Elizaren atarian kokatutako komunak guztiz berrituak izanen dira ahalmen urrikoendako komunak eta lokal tekniko bat sortzeko gisan. Garbiagoa, ederragoa izanen den lokalak joan den azaroan eginak izan diren helgarritasun-antolaketan jarraipena segurtatuko du, hots ahalmen urrikoen helgarritasunerako altxagailua eta arrapala.

7. L'éclairage du stade, défaillant, est en cours de remplacement par des LED, plus performantes, plus économiques et moins énergivores, de façon à assurer le bon déroulé des entraînements en soirée.

Gaizki dabilzan estadioko argiak LED argiz ordezkatuak izanen dira. Eraginkorragoak dira, diru eta energia gutiago xahutzeko bidea eskainiko dute, arratsetako entrenamenduen ibilera ona segurtatuz.

8. Les menuiseries de la mairie encore en simple vitrage seront remplacées par des fenêtres isolantes, ce qui devrait contribuer à améliorer le confort thermique du bâtiment et réduire la consommation de chauffage.

Herriko etxeko berina bakarreko zureriak leiho isolagarriak ordezkatuak izanen dira, eraikinaren erosotasun termikoa hobetzeko eta berogailuak gutiago baliatzeko xedez.

Les Cibouriens mobilisés pour dessiner l'Encan de demain

Après la balade exploratoire de l'Encan, l'atelier de recueil des attentes, le jeu du programmiste et l'atelier des jeunes, la concertation menée autour de l'aménagement du quartier de l'Encan se poursuit, autour de l'atelier d'analyse des scénarii proposé les 24 et 25 mars prochains.

L'ATELIER ANALYSE DES SCENARII

Au cours d'un premier atelier participatif mené en novembre, les habitants ont fait remonter, par groupe, leurs principales attentes sur le futur quartier.

Sur cette base, au cours d'un second atelier mené en décembre, les participants ont travaillé en équipe sur plans pour dessiner le futur quartier de l'Encan, en intégrant à la fois ces attentes, les invariants du projet et les différentes contraintes inhérentes au site.

Une quinzaine de plans a ainsi été produite, sur laquelle de nombreuses similitudes peuvent être observées, permettant d'établir de bonnes bases de travail. En parallèle, les attentes des 12-18 ans, futurs résidents du quartier, ont également été recueillies le 26 février dernier et matérialisées sur plans.

L'ensemble de ces plans a été retravaillé par le groupement d'études sous la forme de trois scénarii d'aménagement ; les habitants sont invités à les découvrir et à en débattre au cours d'un nouveau temps de concertation, qui se tiendra les 24 et 25 mars prochains. Toujours par groupe, les habitants seront invités à analyser ces scénarii à partir de grilles spécifiquement conçues pour déterminer le plus pertinent !

RDV les 24 et 25 mars prochains de 18h30 à 21h.

Lundi 24 mars : à la Chapelle des Récollets
Mardi 25 mars : à la salle paroissiale

L'atelier est gratuit. L'accueil se fait dès 18h15. Un buffet dînatoire est offert au cours de l'atelier.

Enfants bienvenus ! Un espace d'accueil, sous la responsabilité d'un animateur, est prévu pour les enfants de plus de 3 ans. Les enfants de moins de 3 ans sont sous la responsabilité de leurs parents.



© Coté sud photos

RECONSTRUIRE UN NOUVEAU QUARTIER SUR LUI-MÊME, UNE OPPORTUNITÉ UNIQUE

Afin de répondre aux besoins de la population cibourienne en matière de logements, dès 2015, le quartier de l'Encan, stratégique par sa localisation et grand de 6,6 hectares, a été identifié comme le site pouvant accueillir une opération de renouvellement urbain d'envergure. Au-delà de créer des solutions de logements accessibles, il s'agira d'aménager un quartier comprenant des infrastructures de transport, des espaces publics qualitatifs, des services et activités économiques.



© KOMCEBO

Cet aménagement a pris une nouvelle dimension en septembre dernier, avec le démarrage de l'étude de programmation urbaine qui conduira à l'élaboration du plan-guide, représentation graphique du quartier répondant aux grandes orientations d'aménagement du quartier. De façon à nourrir la réflexion et à les guider dans leurs choix et décisions, Eneko Aldana-Douat, maire de Ciboure, Jean-René Etchegaray, président de la Communauté d'Agglomération Pays Basque et les élus municipaux et communautaires en charge des thématiques concernées, ont choisi de mener une concertation large avec les habitants, au-delà de leurs obligations réglementaires en la matière.

Sous la maîtrise d'ouvrage de la Communauté d'Agglomération Pays Basque et de la Ville de Ciboure, un groupement de consultants a été retenu pour élaborer ce plan-guide ; le Syndicat des Mobilités et le Département des Pyrénées-Atlantiques sont associés à son élaboration.

Une fois celui-ci validé, une nouvelle étape s'ouvrira, avec l'étude fine de chacun des projets dans l'aménagement général, qui précèdera le démarrage des chantiers.

© KOMCEBO



ZIBURUTARRAK BIHARKO ENCAN AUZOTEGIA MARRAZTEKO MOBILIZATUAK

Joan den urriaren 12an, hirurogei bat lagun baino gehiago ibili dira Encan auzotegian gaindi, lekuko aberastasunak (berriz) ezagutzeko eta antolaketa proiektuan balioan ezartzeko xedez. Bisitak programatze-ikerketen eta horri lotutako hitzartzearen abiatzea markatu du.

Orduz geroztik, hitzordu bat baino gehiago antolatua izan dira biztanleak hedadura handiko antolaketa horretan parte harrazteko. Eta saldoan etorri dira. Tailer guztiak bi saiotan antolatua behar izan dira interesatutako jende guzietan parte har zezaten. Hautetsiek nahi izan duten hitzartze zabala arlo horretako arauzko betebeharrak baino askoz haratago doa.



"Encan proiektua hirian bertan auzotegi berria eraikitzeko aukera paregabea da, bizitegi helgarriak, saltegiak, zerbitzuak, kalitatezko eremu publikoak eta jarduerak ekonomikoak bilduko dituen auzotegi bizia. Ezin dugu huts egin; hara zergatik erabaki dugun biztanleei hitza ematek, auzotegi horren zehaztean ahal bezainbat parte har dezaten." Eneko Aldana-Douat, Maire de Ciboure

La Ville vous aide à vous protéger des inondations : Hiriak uholdeetatik gerizatzen laguntzen zaituzte

La commune de Ciboure peut être touchée par des inondations dès lors que deux phénomènes naturels se rencontrent : des fortes précipitations et des coefficients de marée élevés.

Afin d'aider les habitants et les professionnels à faire face à ces risques, la Ville propose une aide financière à l'acquisition d'un dispositif de protection, les batardeaux. Amovibles, provisoires, et rapides à installer, ces portes anti-inondations obstruent les ouvertures pour empêcher l'eau de s'infiltrer dans les bâtiments.

Cette aide est proposée dans les secteurs de la ville soumis à ces risques d'inondations, soit le secteur de l'Encan-Zibiburu-Marinela, celui de l'Untxin et autour d'Erreka-Zahar et du Petit-Bois.

La Ville interviendra à hauteur de 50% de la dépense TTC, le montant de la subvention octroyée étant plafonné à 1 000 euros TTC par unité.

Arriskuen prebentzioaren arloan Hiriak daramatzan ekintzen harira, ur-hesiak erosteko laguntza proposatzen die partikularrei eta profesionali.

Retrouvez toutes les modalités pour effectuer votre demande sur le site de la Ville
Zure eskaera egiteko modu guziak aurkituko dituzu Hiriaren webgunean



Rénovation de l'assainissement :

un enjeu pour la qualité des eaux de baignade

Saneamendua berritzea: bainatzeko uren kalitaterako erronka



En parallèle des projets portés par la Ville, d'autres aménagements sont en cours sur la commune, à commencer par la rénovation des réseaux d'assainissement.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque, compétente en matière d'assainissement et d'eau potable, a initié deux chantiers de réfection des canalisations, le premier sur l'avenue de Bordagain, mené en février, et le second sur la D810, démarré mi-février pour une durée de quatre mois et demi.

Sur ce dernier, il s'agit de moderniser près d'un kilomètre de réseaux d'eau pour garantir une eau de qualité et préserver notre environnement. Un investissement nécessaire, tant pour éviter des fuites sur un réseau très vieillissant, que pour améliorer la qualité des rejets dans la Nivelle et la baie, et donc améliorer la qualité des eaux de baignade.

METTRE EN SÉPARATIF LES EAUX,

UN ENJEU PHARE POUR LA QUALITÉ DES EAUX DE BAINNADE

Après utilisation, les eaux usées rejoignent le réseau d'assainissement et sont traitées par la station d'épuration de Laburénia à Urrugne. Une fois épurées, après contrôle, elles sont restituées au milieu naturel. Mais, lors de pluies intenses, les réseaux dits unitaires (qui renvoient via une même canalisation les eaux de pluie et les eaux usées vers les stations d'épuration) peuvent être amenés à déborder et les eaux se déversent directement dans le milieu naturel, à savoir les cours d'eau, avant d'arriver dans la baie.

C'est pourquoi, il apparaît nécessaire de mettre en place un système dit « séparatif » qui permettra de garantir le bon traitement des eaux usées et par là-même, d'assurer une meilleure qualité des eaux de la baie.

Ziburuko Hiriak daramatzan proiektuez gain, beste antolaketa batzuk dira aribidean hirian, hala nola saneamendu sarearen berritzea.

Edateko uraren eta saneamenduaren eskumena duen Euskal Hirigune Elkargoak hodiak konpontzeko bi obraleku abian jarri ditu, bata Bordagaineko etorbidean, otsailean eramana, eta bestea D810 errepidean, otsail-erdian abiatua, lau hilabete eta erdiko iraupenarekin.

Azken horretan, kilometro luzeko ur-sarea gaurkotzea da helburua, kalitatezko ura bermatzeko eta gure ingurumena zaintzeko. Ezinbesteko inbestimendua da, hala zaharkitua den sarean isurtzeak baztertze, nola Urdazurira eta badiara isurtzen diren uren kalitatea hobetzeko eta, ondorioz, bainatzeko uren kalitatea hobetzeko

URAK BEREIZTEA, BAINATZEKO

UREN KALITATERAKO ERRONKA NAGUSIA

Erabiliak izan ondotik, ur zikinak saneamendu sarera isurtzen dira eta Urruñako Laburénia araztegiaren tratatuak dira. Araztuak eta kontrolatuak izan ondotik, natura gunera itzultzen dira.

Haatik, euri-erauntsiak direlarik, sare bateratuek (hodi bakar baten bidez euri-urak eta ur zikinak araztegiara bidaltzen dituzten sareak) gaindi egin dezakete eta urak natura gunera isurtzen dira zuzenean, hots erreketara eta ondotik badiara.

Hara zergatik ezinbestekoa den bereizketa sistema bat plantan ezartzea, ur zikinen tratamendu egokia segurtatuko duelarik eta, ondorioz, badiako uren kalitate hobea bermatuko.

Les sauveteurs à l'honneur



Sokorritzaileak ohoretan

Lorsque des événements climatiques touchent la commune, les sauveteurs, professionnels comme bénévoles, sont en première ligne pour agir. En décembre 2023, ils sont intervenus sur le naufrage du Cycnos dans des conditions extrêmes, en pleine nuit, par une mer agitée pour porter secours à l'équipage du bateau de pêche.

En décembre 2024, les pompiers sont intervenus en plein vent, pluie battante, pour sécuriser le toit de l'espace polyvalent et éviter qu'il ne s'envole sur l'autoroute. Pour féliciter et remercier les sauveteurs pour leur dévouement et leur courage, la Ville a souhaité mettre à l'honneur l'ensemble des sauveteurs et a ainsi

remis la médaille de Ciboure aux pompiers et aux bénévoles de la SNSM intervenus sur le Cycnos.

Txalo bero bat eta ikustate handi-handia besteei sokorri emateko eta gure ondasunak babesteko esku hartzen duten sokorritzaile boluntario eta profesionali!

Ciboure, Territoire Engagé pour la Nature Ziburu, Naturaren alde Engaiatutako Lurraldea

L'année dernière, la commune s'est inscrite dans la démarche nationale Territoire Engagé pour la Nature, portée par l'Office Français de la Biodiversité, qui a pour objectif de faire émerger les initiatives locales engagées pour la défense de la biodiversité. Dans ce cadre, la Ville a souhaité valoriser quatre des actions qu'elle porte dans le cadre de la politique menée en matière de transition écologique, parmi lesquelles la végétalisation des cours d'écoles, la régénérescence du Petit-Bois et la gestion de l'espace naturel sensible des Barthes de la Nivelle.

Iaz, Bioaniztasunerako Frantziako Bulegoak daraman Naturaren alde Engaiatutako Lurraldea urraspidean sartu da Ziburuko Hiriak. Bioaniztasunaren zaintzarako tokiko ekimenak sortzea eta balioan ezartzea du helburu. Ildo horretatik, Hiriak berè trantsizio ekologikoaren arloko politikaren harira dakartzan lau ekintza balioan ezarri nahi izan ditu, hala nola ikastetxeetako jostalekuen landareztatzea, Oihan Ttipiaren berriztatzea eta Bartak eta Urdazuriko naturagune zaurgarriaren kudeaketa.



Les cours d'écoles se mettent au vert

Si la bétonisation des cours d'école était la solution plébiscitée jusqu'à présent pour garantir propreté et simplicité d'utilisation, ces dernières deviennent aujourd'hui de véritables îlots de chaleur. Afin de les adapter progressivement au changement climatique, depuis 2023, la Ville a initié une réflexion sur la végétalisation des cours d'école et de la crèche municipale.

Dans un souci de sobriété et d'économie, tout ne sera pas refait à neuf ; néanmoins, l'idée est de repenser ces espaces, à la fois pour offrir de nouvelles opportunités pédagogiques, favoriser la mixité des usages et apporter un peu de fraîcheur au sein de ces lieux de vie et d'apprentissage.

Pour ce faire, c'est une démarche participative qui a été choisie, de façon à associer les enfants et les adultes travaillant dans les établissements : des outils pédagogiques ont ainsi été déclinés pour co-dessiner les plans, redéfinir les espaces mais aussi pour créer le futur mobilier et préparer les plantations.

Dès les vacances de février, les cours des écoles Marinela et Croix-Rouge ont ainsi fait l'objet d'une première phase de travaux, comprenant une opération de décroûtage puis d'apport de terre végétale et d'engazonnement.

Prochaine étape : les plantations d'espèces végétales fleuries et fruitées, d'arbustes et d'arbres de hautes tiges, ainsi que la création d'un mobilier ludique et inspiré de la nature, dans les prochains mois. En parallèle, l'étude se poursuit à la crèche pour une mise en œuvre au cours de l'année. Et sur l'école Saint-Michel, les parents d'élèves ont travaillé, en interne, un projet avec l'équipe éducative pour déminéraliser certaines parties de la cour.

C'est le coût prévisionnel de l'opération, sur les 3 établissements (Marinela, ikastola et crèche)

Ekintzaren aurrekontua da, 3 ikastetxeetan (Marinela, ikastola eta haurtzaindegia)

Ikastetxeetako jostalekuak berdetzen dira

Ikastetxeetako jostalekuak klima nahasketara egokitzeko xedez, 2023tik goiti Ziburuko Hiriak ikastetxeetako eta haurtzaindegiko jostalekuak landareztatzeari buruzko gogoeta bat abiatu du.

Diru eta urritasun arrazoiengatik dena ez bada osorik berriz egina izanen ere, asmoa da eremu horiek berriz pentsatzea, aukera pedagogiko berriak eskaintzeko, erabileren nahasketa sustatzeko eta freskotasuna ekartzeko gisan bizi eta irakaskuntza leku horietan. Horretarako, urraspide parte hartzailea hautatua izan da, ikastetxeetan diharduten helduek eta haurrek hitza har dezaten: tresnak garatuak izan dira planak elkarrekin eraikitzeko, baita altzariak eta landaketak asmatzeko eta espazioak berriz zehazteko ere.

Otsaileko oporretatik goiti, Marinela eta Gurutze-Gorri ikastetxeetako jostalekuetan, obren lehen urratsa egina izan da. Mundruna kendua izan da, eta landare-lurra eta soropila ekarria. Hurrengo urratsa: lore- eta fruitu-landare motak, zuhaixkak eta zurtoin luzeko zuhaitzak landatzea, baita naturatik inspiratutako altzari jostagarriak sortzea ere, hurrengo hilabeteetan. Aldi berean, ikerketa beti aribidean da haurtzaindegian, obrak urtean zehar egiteko asmoz. Eta San Mixel ikastetxean, ikasleen gurasoek jostalekuko zati batzuk desmineralizatzeko proiektu bat landu dute hezkuntza-taldearekin.



20%

C'est la surface végétalisée des cours après travaux

Obrak egin ondotik, jostalekuen landareztatutako azalera da

130 000€



La nouvelle gestion du Petit Bois

